

"Urte hasieran esan balidate, ez nuen sinistuko"

Ainara Arkarazok Euskal Herriko Ultren Kopa irabazi du. Enkarterri Xtrem, Nafarroa Xtrem eta Euskal Herria Mendi Erronkan onena izan da abadiñarra. / 20



MANU CAMERO



"ATXARTEN GERTATURIKOA AZALDU BEHAR DUGU, ETA GERTATUTAKOTIK IKASI"

Zelan birnaturalizatu Atxarteko harrobiak? Galdera horri erantzun guran, Abadiñoko Udalak eta EHUko Ekopol ikerketa taldeak prozesu bat hasi dute ingurune naturala lehengoratzeko. Iñaki Barcena ikerketa talde horretako kidea da, eta harrobien kontrako ekintzaile ekologista izan zen 90eko hamarkada hasieran. / 2-3

Iñaki Barcena Atxarten, garai bateko harrobien parean.

Uztailaren 15ean iritsiko da Urmuga Mañarira; Angurreta espazioan kontzertu berezia egongo da / 17



HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXEEKO ALTZARIAK

Uztaila | 2025
UDAKO MERKEALDIA
Mini-kanpainaren aurkezpena

Abadiño

www.homedesign.schmidt | 946 526 195

M.Z. / E.H. ATXARTE

Ia hiru hamarkadako isiltasunaren ostean, galdera batek hartu ditu Atxarteko inguruak: "Zer egin garai bateko harrobiekin? Zelan berreskuratu ingurune naturala?". Abadiñoko Udala eta EHUKo Ekopol ikerketa taldea harrobiok zelan birnaturalizatu aztertzen hasi dira. Iñaki Barcena ikerketa talde horretako kidea da, eta ondo ezagutzen du 90eko hamarkada hasieran Atxarten egondako borroka ekologista, bera izan zen-eta kanteren kontrako ekintzaileetarikoa bat. 30 urte geroago, ANBOTO garai bateko harrobietan batu da Barcenarekin, han geratu ziren azkenengo harrizko kubo erraldoien ondoan, herdoildutako kamioien artean eta Untzillatxeko saien azpian.

Zer oroitzapen dakarzkizu leku honek?

Sentimendu kontrajarriak sorrazten dizkit leku honek. Nik hemen beldur handia pasa dut. Alde batetik, paretetan, eskalatzan. Beldur hau normala da, eskalatzailak sarri izaten ditugu horrelakoak. Baina, pasa dut beldurra Guardia Zibilarengatik, ertzainengatik. Hala ere, Atxarte niretzat leku zoragarri eta sinbolikoa da. Abadiñoko Udaleko kideek beraien asmoaren berri eman zigutenean, eta Ekopol taldeari harrobiaren birnaturalizaziorako ariketa bat egiteko eskatu zigutenean, notizia pozarren hartu nuen.

Niretzat Atxarte leku oso berezia da, Durangaldeko lekuri politenetako bat. Baina, bada gizakiok zapuztutako lekua ere. Gizakiok hemen zauri handia egin genuen. Guk hori gazte, eskalatzaila moduan ikusi genuen, Francoren garaian. Sasoiko gizarte mugimenduek lortu genuen hau gelditzea. Orain ikusten dut hau geldituta, hondakinez betea. Eta, jakitea kalte horiek gutxitzeko lan egingo dela, oso berri ona da. Unibertsitatetik eta ekologismotik egingo den gauza polita da azterlan hau.

Zer da eskuartean daukazuen ikerlana?

Udaletxetik egin diguten enkaragua da Atxarteko bi harrobien birnaturalizaziorako aurreproiektu bat aurkeztea. Behin hori izanda, dirua eta botorea duten instituzioetan hori aurkeztuko dute, berau aurrera eramateko errekurtsio ekonomikoak lortzeko asmoz. Atxarte gizarte indus-



Iñaki Barcena garai bateko Atxa-txiki harrobian.

"Atxarte gizarte eragileen ahotsarekin errekuperatu beharko litzateke"

IÑAKI BARCENA HINOJAL EHU-KO IRAKASLEA ETA EKOPOL IKERKETA TALDEKO KIDEA

EHUKo Ekopol ikerketa-taldea eta Abadiñoko Udala Atxarteko harrobiak zelan birnaturalizatu aztertzen hasi dira. Barcena ikerketa talde horretako kidea da. Harrobien kontrako aktibista izan zen 90eko hamarkada hasieran

trialean jipoitutako ingurune naturala da, gizakion lanak izorratutakoa. Beraz, uste dugu gizartearen ahotsarekin egin behar dela errekupezioa. Orduan, urtebeteko prozesu parte-hartzaile bat jarriko dugu martxan, eta hemen dauden hainbat talde, eragile eta interesatuekin egingo dugu. Jendearen iritzia jaso gura dugu. Eta, zer egin ahal den eta zer ez ikusteko legeak jarriko ditugu mahai gainean. Baita irizpide ekonomiko, politiko-kulturalak eta abar ere. Azkenean, kontuan hartu behar

"EKOLOGISTEN, MENDIZALEEN ETA HERRITARREN ALIANTZAK IRABAZI ZUEN BORROKA HAU"

da hau parke naturala dela, eta parke natural batean legedi oso bereziak daude. Behin aukera ezberdinak mahai gainean daudela, instituzioek erabakiko dute zer egin behar duten. Hala ere, gure helburua hau beste modu batera ikustea da, ez orain bezala hondakinez beterik.

90eko hamarkadara begira jarriko gara orain. 1990ean Urkiola parke natural izendatu zuten, eta Atxarteko harrobiak parkaren barruan sartu zituzten. Une gatazkatsuak bizi izan ziren. Nolako garaiak izan ziren?

Euskal Herriko egoera soziopolitikoan garai gogorra izan zen. Baina, hemen bereziki, egoera berezia zen, kontraesan nabaria zegoen. Alde batetik, parke natural batean jarraitzen zuen industria bat zegoen, gure ustez, alegala edo ez legala zena. Indus-

tria honek beste 25 urtean jarraitu gura zuen, eta ezetz esan zioten. Orduan, ekologistak, eskalatzailak eta mendizaleak konturatu ginen lanean jarraitzen zuten horiek, legez kanpo zudela, eta aprobetxatu genuen esateko ezetz, ezin zutela Atxarten lanean jarraitu. Horren aurrean, gure borroka egin genuen. Laupabost urtez, Labargorriren erdian hamaka bat jarrita izan genuen. Hamakan uneoro norbait egonez gero, ezin zuten lehergai lurrik jarri. Hortaz, txandakatu egiten ginen, une oro norbait egoteko. Borroka irabazi genuen.

Beste aldetik, kontramugimendu bat eratu zen. Abadiñoko Udalak aholkularitza bat kontratatatu zuen, harrobiko langileen defentsan kanpaina bat egiteko, eta bertako langileek gose-greba moduko bat egin zuten Muntsa-

ratzen. Konfrontazio eta elkarriketa oso gogorrak egon ziren. Gu ere langileen seme-alabak ginen, eta guk argi esaten genuen langile horientzat beste irtenbide bat bilatu behar zela, baina hemen egindako triskantza bukatu behar zela. Gainera, nahiz eta bide baketsuetatik ibili, hainbat hedabidetan sarritan entzun eta irakurri genuen hamakatik eskegita geundenak terroristen lagunak ginela. Garai gogorrak izan ziren, baina garrantzitsua borroka irabazi genuela da. Atzera begira ikusten duzu, borrokak balio duela. Ekologisten, mendizaleen, eskalatzailen eta herritarren arteko aliantzek balio izan zutela hau guztia gelditzea.

Labargorri aipatu duzu. Zu zeu egon zinen hamaka horretatik eskegita? Bai, asteburu batean pare bat gau egin nituen bertan, hainbat

eskalatzaile lagunekin. Txandak egiten genituen, eta egokitzen zitzaigun egunean bertara igo eta han egoten ginen. Labargorriko hamakak mina egin zuen; harri-pikatzailak ezin zezaketen beraien lana egin, eta horrek beraien lanean etena ekartzen zuen.

Urkiolaren Aldeko Bartzordea sortu zen, eta hainbat ekimen egin ziren. Ekimen ugari egin ziren, Urkiola Bizirik antolatu zen, ideien lehiaketa bat ere proposatu zen, Atxarteren Ataria aurkeztu zen, bertan hainbat gauza egiteko. Dena harrobiak geldiarazteko zen. Denboraren poderioz, dena ezerezean gelditu zen.

Garaiko testuinguruan, hori baino lehenago, Lemoiz geneukan, Leitzarango autobia... Bazegoen kontzientzia ekologista. Lehen esan duzu: "Hau irabazi genuen".

Bai, eta Lemoizkoa ere irabazi genuen. Euskal ekologismoak duen arazo nagusia da, momentu honetan, euskal gizartean, euskal lobby enpresarial-teknologikoen ezarri gura dutela nuklearrari buruzko eztabaida, berriro nuklear txikiak egiteko eta armagintzan jarraitzeko planak dituztela. Hori da azken sasoian entzudakoa. Eta, nahiz eta azken 40 urteotan askotan irabazi dugun, konturatzen zara betiko eliteak, negozioaren bila dabilzanak, berriro ere planteatzen dutela, eta zergaitik ez jorratu bide militarra, bide nuklearra. Zoritxarrez, planteamendu antiekologiko eta antisozial horiek jarraitzen dute martxan, eta mugimendu ekologistak, mugimendu sozialek, herritarrok erantzun behar dugu. Hau gure historiaren seinale bat da, ezin daiteke ezer eman betiko garaitua.

Gaur egun bolo-bolo dabilzan hitzak dira trantsizio ekologikoa, deskarbonizazioa... Zein alde dauka hemengo borrokak garai hartako kontzientzia ekologikoarekin?

Katez kate doaz gauzak, hau da, heldu gara momentu batera, non konturatu garen gure zibilizazioaren ibilbideak gero eta gehiago kontsumitu, gero eta urrunago bidaiatu gura duela. Eta, horrek guztiak kalteak ekarri ditu. Atxartekoa esaterako makroindustria bat da, erokeria da. Eta, gure gaztaroan ere, guretzat hau astakeria galanta zen, eta ez zuen inolako zentzurik. Jendeak esaten zizun, "zuk errepidea eraikitzen duzu eta horretarako

porlana beharrezkoa da". Bai, behar dugu porlana, baina dena bere neurrian. Ezin da bakarrik negozioan edo esportazioan pentsatu. Negozioa ez da lehenengoa, lehenengoa bizitza da eta bizitzaren oreka.

Orduan, orain, trantsizio ekososziala, trantsizio energetikoa edo elikagai trantsizioa planteatzen direnean, nire ustez, planteatu behar dena oreka bilatzea da. Niri, pertsonalki, 'trantsizio' hitza ez zait asko gustatzen, uste baitut gezur asko daudela sarritan horren atzean. Azkenean, trantsizioa ez da bakarrik teknologia aldatzea. Trantsizioa da bizitzak modu erradikalean aldatzea: gure jateko moduak, mugitzeko moduak, kontsumo moduak... European eta Euskal Herrian, modu antisozial eta antiekologikoan bizi gara, guk kontsumitzen ditugun elikagaiak, energia... kanpotik ekartzen ditugu. Eta, hori da aldatu behar dena.

Niretzat Atxarteko esperientzia ikasgai bat izan zen, nire bizitzarako oso erdugarria izan dena. Arlo profesionalean, pribilegiatua izan naiz, unibertsitategian batez ere ingurumen politiketan, ekologia politikoa, hemengo esperientzia elkarbanatu ahal izan dudalako. Orain, urte batzuk geroago, Atxarten nago berriro, Ekopoleko lagunekin, honi bukaera polita emateko esperantzarekin.

Bukatze, galdera bikoitz bat. Zein da Atxarteko borrokaren legatua? Oroitzen dugu Atxarteko borroka hori behar beste?

30 urte pasatu dira Labargorri eskegi ginetik, eta Euskal mendizale eta eskalatzaileen memoria badago Atxarteko borroka. Baina, gainontzekoengan ez dakit. Memoriatik ikasi beharra dago. Eta, seguru nago orain hasi dugun urtebeteko ikerketak prozesu honek animatuko dituela gazteak oroimen lanak egitera. Atxarten gertatutakoa azaldu behar da, eta hemen gertatutakotik ikasi behar dugu. Ikasi behar dugu zeintzuk diren egin behar ez diren gauzak, eta zein den bide zuzena.



Ikusi bideoa



Eskalatzaileek hainbat urtez oztopatu zituzten harrobietako lanak, Labargorri eskegita. Sinclair eta Ximena. PABLO GARITAONANDIA



Iñaki Barcena Labargorri eskegita. I.B.



Tentsio giro handia egon zen Atxarten. TXELU ANGOITIA

Diru bilketa, 40 Minutu Rock-ek aurrera egiteko

Ezezagunek jaialdiaren material elektriko guztia lapurtu dute, eta 10.000 eurotik gorako kalte ekonomikoa eragin. Antolatzaileek kanpaina bat hasi dute norbanakoen eta elkarleen diru ekarpenak jasotzeko. "Herri osoaren bultzada" behar dutela nabarmendu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

40 Minutu Rock jaialdiak ekarpen ekonomikoak jasotzeko kanpaina hasi du, festibala antolatzen jarraitu ahal izateko. Argi eta garbi ohartarazi dute: "Momentu honetako egoeran, material lapurreta honek erabat zailtzen du gure egitasmoa aurrera eramatea, eta ezin dugu 40 Minutu Rock aurrera ateratu". Horregatik, galera horri aurre egin ahal izateko diru-bilketa hasi dute. *Itsulapikoa.eus* atarian eta Bizum aplikazioan zabaldu dituzte ekarpenak egiteko bideak (12260 kodea, azken horretarako). Izan norbanako ala kolektibo, "herri osoaren bultzada" behar dutela nabarmendu dute.

Jaialdiko antolatzaileek astelehenean eman zuten gertatutakoaren berri: ezezagunek jaialdiko material elektriko guztia lapurtu zuten, eta 10.000 eurotik gorako galera ekonomikoa eragin diote festibalari. Gogorarazi dutenez, jaialdia irabazi asmorik



Jaialdiko antolatzaileek kontzentrazioa egin zuten eguaztenean. 40 MINUTU ROCK

barik antolatzen dute urtero, eta bertan sortzen diren etekin guztiak "euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko borrokara" bideratzen dituzte. Festibalaren hurrengo edizioa otsailaren 21ean ospatuko da Landako Gu-

nean. Edizio berezia izango da, 40 Minutu Rockek bere 10. urtemuga ospatuko du-eta. "Aldarrikapenak ozen entzun daitezten" egingo dute lan, eta herritarrak gonbidatu dituzte "hausnartzera zein babes kolektiboa antolatzera".

Durangoko PPK anbulantzia medikalizatua eskatu du

"Ezin dugu durangarren oinarritzko beharrian horri entzungor egiten jarraitu", esan du Carlos García

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko PP kezkatuta agertu da udalerriko eta Bizkaiko barrualdeko eskualdeetako osasun arretarekin; egoera "larria" dela esan du. Hori dela eta, Durangoko anbulantzia medikalizatu bat behar duela berretsi du, beste behin ere, Carlos García zinegotziak: "Ezinbesteko baliabidea da, bizitzaren eta heriotzaren arteko aldea markatu dezakeelako. Ezin dugu durangarren oinarritzko beharrian horri entzungor egiten jarraitu". Gaineratu duenez, Gernikako anbulantzia medikalizatua, Durangori arreta eskaintzeaz arduratzen dena, egun batzuetan "zerbitzurik eman barik" egon da. Era berean, "osasun sailburuak eta bere departamenduak" ezin dutela "beste aldera begiratzen jarraitu" esan du: "Utzikeria milaka herritarren bizitza arriskuan jartzen dabil. Berehalako konponbideak exijitzen ditugu".

Merkatuko postuen alokairua kritika-iturri

Herriaren Eskubideak dioenez, prezioek % 20 egin dute gora. "Oztopo gehigarria" dela diote

Ekaitz Herrera DURANGO

Herriaren Eskubideak bere desadostasuna agertu du, Durangoko Udalak merkatu plazako postuen alokairuak eta gune komunetan mantenu-gastuak igo dituela eta. Aurrerantzean, merkatariek 17,4 euro ordainduko dute hilean, metro karratu bakoitzeko. Hau da, urteko prezio osoak 1.968 eta 5.429 euro artean egongo dira. Talde independenteen iritziz, neurri horiek "are gehiago zailduko dute merkatu plaza berritzea", merkatarientzat "oztopo gehigarria" izango direlakoan. Herriaren Eskubideak azpimarratu duenez, neurri berriak "agerian" utzi ditu talde independenteen eta gobernu taldearen artean dauden "irizpide ezberdintasunak".

Bestalde, Durangoko Udalak iragarri duenez, merkatu plaza berritzeko lanak udan zehar egingo dituzte. Urrirako amaituta egotea gura dute.

Durangoko gaztetxeko kide bat epaitu dutela salatu dute

Gazteen arabera, Durangokoa izan da okupazio lege berriaren eraginak jasan dituen lehenengo gaztetxea



Gazte ugari hurreratu zen epaituari elkartasuna adieraztera. KALETIK GAZTETXERA

Ekaitz Herrera DURANGO

Joan zen astean, Durangoko gaztetxeko kide bat epaitu zuten, Montorretako lantegiko okupazioarekin lotuta. *Kaletik Gaztetxerako* kideen eta Defentsa Komunitateko kideen arabera, gazteak "epaiketa azkarra" izan zuen, Espainiako kongresuak okupazio-delituen prozesu judizialak bizkortzeko helburuz onartutako arau berria ardatz. Gazte mugimenduek esan dutenez, udalerrikoa izan da lege berri horren eraginak jasan dituen lehenengo gaztetxea. Neurriak "Euskal Herriko ondare politiko, sozial zein kulturalak izan diren gaztetxeak mantentzea" zaildu egiten duela esan dute. Halaber, gaztetxeak "langile kolektiboen gotorleku" eta "auzoetako musika taldeen zein kultur ekintzaileen eszena-toki" izan direla gogorarazi dute.

32 kilometrora zabaldu dute Durangoko bidegorri sarea

Besteak beste, Gran Hoteleko biribilgunean eta erdialdeko hainbat kaletan egin dituzte azken esku-hartzeak

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak amaitutzat eman ditu udalerriko bizikleta sarea handitzeko lanak. 18 kilometro gehigarriekin hornitu dute orain arteko bidea: Gran Hoteletik hasi eta erdiguneko hainbat kaletan egin dituzte esku-hartzeak, hala nola Ollerian, Larrasoloetan, Landakon, Frai Juan Zumarragan, Alluitzen eta San Roken. Durangoko Udalak azaldu duenez, hainbat puntu beltz kendu dituzte, Montorreta kalearen eta Ramon Rubial kaleen artekoa, besteak beste. Era berean,

Tabirabide eta Alde Zaharraren arteko lotura hobetu dutela esan dute. Beste jardueretako bat Olleria eta Faustebekoa kaleen arteko oinezkoentzako pasealeku berria zabaltzea izan da. Bertan, 400 metroko espaloia hartu dute, oinezkoen eta bizikleten arteko lotura hobetze aldera. Sara Oceja hirigintza zinegotziak esan duenez, zabalkundearekin, "Durangok beste pauso bat eman du mugikortasun eredu jasangarriago" baterantz. Lanek zortzi hilabete iraun dute. Udalak 257.734 euroko inbertsioa egin du.

Lau ertzain gehiago Genero Indarkeriaren Kontrako Unitatean

Orain arte bi agente arduratu dira indarkeria matxistagatikoko kasuak artatzeaz. Pertsonal kopurua bikoiztu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, udalerriko ertzain-etxeko genero-indarkeriaren kontrako unitatean lau agente egongo dira, aurrerantzean, indarkeria matxistagatiko kasuak artatzen; orain arte, bi jardun dira lan horretan. Udalak azaldu duenez, erabakiak "tokiko elkarteen eskaera" du oinarri, eta "genero-indarkeriaren salaketen arreta eta jarraipena hobetzea" du helburu.

Eduardo Olaizolak, Durangoko ertzain-etxeko komisarioak, nabarmendu duenez, agenteen gehi-

kuntza "funtsezkoa" da biktimei zerbitzu hurbilagoa eta espezializatuagoa emateko: "Esku hartzeko gaitasuna, jarraipena eta biktimentzako arreta hobetu nahi ditugu", azaldu du.

Gai honek eztabaida piztu zuen urtarrean Durangon, emakume batek jasandako eraso baten harira DAFAk egin zuen salaketa publiko baten inguruan. "Durangon ustez Indarkeria Matxistan adituak diren bi langile egon behar dira Ertzaintzaren komisaldegian, eta 2024ko azken hilabeteetan ez da horrela izan".



Genero-ikuspegia aurrekontuan sartzeko prozesua martxan

M.Z. DURANGO

Durangoko Udalak 2026ko udal-
urrekontuetan genero-ikuspegia
txertatzeko asmoz, hiru fasetan
garatuko duen prozesua jarri du
martxan. Udaletik jakitera eman
dutenez, honi esker, aurrekon-
tu-erabakiek emakumeei eta gi-
zonei nola eragiten dieten modu
argi eta gardenean aztertu ahal
izango da. Lehen faseak, proiektuan
aurrera egiteko beharrezko bal-
dintzak prestatzea du helburu.
Bigarrenean, udalerriaren ezaug-
arri eta beharretara egokitutako
metodologia garatuko da. Eta
hirugarrenean, proposamen me-
tologikoa onartuko da. Behin
onartuta barne-hedapeneko pro-
zesu bat egingo da.

Durangon "Harrotasunaren merkantilizazioa" salatu dute

Ekainaren 28aren atariko modura egin zuten manifestazioa Durangoko eta eskualdeko hainbat herritarrek



E.H. DURANGO

Manifestazioaren amaieran, sexu eta identitate disidenteeek instituzioen eta enpresen "zuriketa arrosa" seinalatu zuten, eta LGTB Harrotasunaren "jatorri politikoa" gogorarazi. Manifestazioaren bukaeran, baztertu egin zuten "politika instituzionalen eta enpresa kapitalisten zuriketa arrosa". Joera horrek harrotasuna "merkantilizatu eta despolitizatu" egiten duela iritzi zioten. Halaber, errefusatu egin zuten joan zen ekainaren 21ean Bilbao Bizkaia Harrok Bilbon antolatutako jardunaldia. Bestalde, "mugimendu trans-baztertzailleen gorakada" ere seinalatu zuten, eta gogoan izan zituzten "indarkeria matxistagatik eraildako eta erasoak jasandako emakumeak, baita zisheteropatriarkatuak jazarritako sexu-genero disidentziak" ere.

Durangon Tabirako ur-txorrotak dagoeneko zabalik daude

Aisialdirako aukera berria eskaintzen duen 110 metro koadroko gune honek 140.118 euroko inbertsioa du

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak amaitu egin ditu Tabira aldean ur-parkea instalatzeko lanak. Instalazioa erabilgarri dago jada. Parke berrian hainbat ur-jolas ipini dituzte, 100 metro karratuko azaleradun espazioan. Udaletik jakitera eman dutenez, ingurune seguru eta irisgarrian jolas-teko eta freskatzeko aukera emango du. "Proiektu honek bizilagunen eskaera bati erantzuten dio" gaineratu dute. Durangoko Udalak 140.118 euroko inbertsioa egin du.



LEA ARTIBAI Matrikula-epea I

Uztailak 11-15

GOI-MAILA:

- Bioteknologia - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
- Elikagaiak elaboretzeko teknikaria
- Soldadura eta galdaragintza
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

- Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

lea artibai
ikastetxea

leartik.eus

Aritz Maldonado ELORRIO

Ekainean omenaldia jaso du Juanito Gallastegi durangarrak, Elorriora abade lanetan joan zenetik 50 urte igaro direlako. **Zelan joan zen Elorrioko omenaldia?** Oso ondo! Gogoratu ere ez nintzen egiten 50 urte igaro direla bertan abade izatera joan nintzenetik. Gustura hartu nuen gonbidapena. Bertan, ikus-entzunezko lan bat ere ikusi genuen, eta horrek ere ilusioa egin zidan; Athleticzale amorratua naiz, eta Jose Angel Iribarrek parte hartzea ilusioa egin zidan. Bestalde, Mikel Oiarzabal Realeko kapitainaren gurasoak nik ezkondu nituen, eta bere aitita eta amama lagunak nituen, eta horrek ere berba egiteak ilusioa egin zidan. Eskerrak eman gura dizkiet modu batera edo bestera parte hartu zutenei.

Iurretako Urrijenan ere aitortza jaso zenuen.

Bost urte eman nituen abade Iurretan. Aurten ohorezko euskaltzain ere izendatu naute; nork pentsatuko luke? Nik ikasketak kanpoan egin nituen, Comillasen (Cantabria, Espainia). Euskarekiko ardura hori bertan gehitu zitzaidan; bertan, elizbarruti guztietako jendea zegoen, baita hegoamerikarra ere.

Bizitza osoa daramazu itzulpengintzan. Nola eragiten dizute Adimen Artifiziala bezalako teknologia berriek?

Aurrerapen guztiak ondo ikusten ditut nik. Hain justu ere, lan

"Omenaldiarekin oso eskertuta nago"

JUANITO GALLASTEGI ABADEA

Bizitza osoa darama Juanito Gallastegik (1933, Durango) abadetzan, eta itzulpen lanak egiten; oraintsu ohorezko euskaltzain izendatu dute, eta Elorrion ere omendu dute



Gallastegi etxean, liburu artean.

baten erdian eman didate honen berri, eta proba bat egiterakoan, ikusi nuen nola bi astetako lana egun bitan egin daitekeen. Ostein, zuzendu eta erreparatu egin behar da, nola ez. Horrek erakusten du gu ez garela robotak, eta ro-

botak ezingo direla iritsi gu garena izatera.

Garai berriei moldatzen jakitea da hainbeste urtez idazten jarraitzeko gakoa?

Hori izango da. Batueratik bizkaitarrera pasatzean, igartzen

da bizkaieraz egiten duen batek idatzi duen edo ez; usaindu egin daiteke hori, eta mantendu egin daiteke. Liturgian, adibidez, hori alde batera utzi behar da, batasunaren alde. Bizkaieraz bai, baina batasunari eusten. Lino Akesolok, adibidez, zoragarri idazten zuen.

Bestalde, Luis Gonzalez-Carvajalen testuak euskaratu ditut, eta oso gustura egin nuen lana da. Abade sartu zen ingeniaria da bera, eta oso atsegin idazten du, edozeinek ulertzeko moduan. Horregatik okurritu zitzaidan euskaratzea. *XXI. mendeko kristauak* eta *Oraingo kulturaren argiak eta ilunak* eta *Apur bat sinesgabe diren kristauei azal dutako kredoa* itzuli ditut. Hizkuntza askotara itzuli dituzte bere obrak, eta euskarara ere bai, horrela. Oso pozik dago bera ere. Horrelako beste liburu bat ere egin daukat, baina azken ukituak ematea falta zaio oraindik. Egin ditudan lanen artean,

bakarras esan dezaket kostata egin nuela, eta batez ere gaigatik eta erdarazko gramatika korapilotsuagatik izan zen.

Itzulpengintzak izango du bere zailtasuna.

Beti esan dut itzulpengintza aldats gora zela, baina orain are gehiago iruditzen zait [barrez]. Duela hamarkadak egin nuen lehenengo itzulpena. Victor Manuel Arbeloa nafarra laguna dut, seminarioan elkarrekin egon ginen, nahiz eta gero bera politikan sartu zen; abadetza, nik dakidala, ez du utzi, baina politikan egon zen urteetan ez zen elizako kon-tuetan sartzen. Oso idazle ona zen, historialaria, baita artista bat ere. Oraindik idazten jarraitzen duela uste dut. Mañerukoa da bera, nafarra, euskaraz ez zekien, baina orduko Anaitasuna aldizkarirako idatzitako testu bat euskaratzea gura zuen, eta hala egin nuen nik.

Idazten jarraitzeko asmoa duzu, beraz.

Bai, liturgia arloan, batez ere. Beharbada, gerora testu bakarra izango du, batuerazkoa, baina, gaurkoz bizkaierazko testua behar dela uste dugu. Batueratik ahalik eta hurbilen dagoen bizkaierazkoa.

"COMILLASEN IKASI NUEN, ETA EUSKARAREKIKO ARDURA BERTAN HARTU NUEN NIK"

Beroaren gaintetik, giro onean ospatu dituzte Berrizko jaiak

Eguraldi onak lagunduta, kalean ospatu dituzte San Pedro eta Santa Isabel jaiak berriztarrek



Ekainaren 27an hasi zituzten jaiak Berrizen.

A. M. BERRIZ

Berriztarrek kalera irten dira San Pedro eta Santa Isabel jaiak ospatzera. Jaiak ekainaren 27an hasi zituzten, Udal Kontseiluko kideek pregoia irakurri eta Donien Atxa igo ostean. Udal Kontseiluko kideek eskatu bezala, jaiak elkarrekin ospatu dituzte berriztarrek, eta beroak uneka gehiegi estututa ere, giro itzelean ospatu dituzte jaiak. Horrela, moztarro jaitsiera jendetsua egin zuten zapatu eguerdian. Bestalde, kontzertuak izan dira jaietako ekitaldirik jendetsuenetako beste batzuk. Besteak beste, Lukiek, Mi Buenaventura edo Luhartz taldeek emanaldiak eskaini dituzte. Eguaztenean amaitu zituzten aurtengoz San Pedro eta Santa Isabel jaiak Berrizen, Deabru Beltzak lekeitiarren suzko ikuskizunarekin.

Larrea kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Uztailaren 10era bitartean egongo da irekita udazkeneko ikastaroetan izena emateko epea


A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu Larrea kiroldegian; izena emateko epea aste honetan zabaldu dute, eta uztailaren 10era bitartean egongo da aukera. Bi modutara egin daiteke izen-ematea, Larrea kiroldegiko harreraren, edota www.amorebieta-etxano.eus webgunean, bestela. Eskaera kopurua eskaintzen diren plazena baino handiagoa izanez gero, zozketa bidez erabakiko dira plazak. Irailetik aurrera eskainiko diren ikastaroen artean, Spinbike,

G.A.Z, Pilates edota igeriketa ikastaroak (maila desberdinetan) daude.

Bestalde, aste honetan hasi da Zornotzan nortasun-agiria eta pasaporte tramitatzeke Espainiako Poliziak eskaintzen duen zerbitzua. Hitzordua Herriarren Arreta Zerbitzuaren bidez eskatu daiteke, aurrez aurre, edo 946300002 telefonora deituta. "Ekimen hau beste urrats bat da, herriarrek horrelako ku-deaketa garrantzitsuak hurbil izan ditzaten", azaldu du Ainhoa Salterain alkateak.

GREMIOEN GIDA

 Zurgintza  Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK  www.leike.eus Antso Estegiz, 3 Durango Tlf: 94 681 72 29	 Zurgintza  EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK  Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com	 Dekorazioa  Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu Eitua Industrialdea, 45 Garaila A - BERRIZ Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421 info@jaiobarnizatuak.com www.jaiobarnizatuak.com
 Elektrizitatea  ELECTRICIDAD JON 622 684 284 electricidadjon@outlook.es	 Iturgintza  M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.  Mallabiena industrigunea, 6 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862 mallabiena@mallabiena.com	 Iturgintza  UNAI GARAY ITURGINTZA BEROGINTZA GASA INSTALATZAILE BAIMENDUA 659 673 790 unaigaray@yahoo.es



"Herritarrekin gertukoak izaten jarraituko dugu"

Astebete joan da Aitziber Areitiok Mañariko aginte-makila hartu zuenetik. Alkate kargura egokitzen dabilen unean, talde-lanaren garrantzia eta herritarrekiko gertutasuna azpimarratu ditu, besteak beste, aurrera begira ardatz moduan



Aitziber Areitio Mañariko plazan, aginte-makilarekin.

Joseba Derteano MAÑARIA

Lehen egunetako sentsazioak eta aurrera begirako erronkak azaldu ditu Mañariko alkate berriak. Herriguneaz gainera, auzoak erdigunera ekartzeko lan egiten jarraituko dutela dio. **Zelan joan dira lehenengo egunak?** Gobernu taldeko kideak eta ni egoera berrira eta udaletxeko martxara egokitzen ari gara. Udal baten egunerokoa kontuan hartzeko gauza asko daude. Gurea udalerrri txikia den arren, zereginak anitzak dira, eta erabaki txiki asko hartu behar dira. Nik, gainera, ez dut inolako ordurik liberatuta lan honetarako, eta badakit batzuetan ordu asko eta inplikazio handia eskatuko dizkidana. Beste lan eta konpromisoekin uztartu beharko dut. Eskerrak eman nahi dizkiot gobernu taldeari, babestuta sentitu naizelako; eta eskerrak herritarrei ere bai, euren berotasuna sentitu dudalako. Behar dudenerako hor daudela esan izan didate. Askok eskertzen dudan keinua da, eta erronkari ilusioz heltzeko indarra ematen dit.

Alkate moduan sei urte eman dituen Ainara Otxotorenaren erreleboa hartuko duzu.

Ainararen ekarpena ezinbestekoa izan da, eta bere dedikazioa eta esfortzua baloratzekoak dira. Izan ere, alkate batek egiten duen lana ez da beti begi-bistakoa. Ikusten ez den lan handia dago. Bere lana eta

ekarpena hor geratuko dira, eta gu hark markatutako bideari ahalik ondoen segida ematen saiatuko gara.

Zerk ezaugarrituko du zure agintaldia?

Herritarrekin gertukoak izaten jarraituko dugu eta udaletxeko atea zabalik egongo da mundu guztiarentzat. Herriguneaz gainera, Mañaria auzoz betetako herria da, eta auzoak ere erdigunera ekartzen jarraituko dugu. Beste ezaugarri bat talde-lana izango da. Herri-mailan hartzen diren erabaki asko ez dira alkaterearen iritzian soilik oinarritzen, baizik eta gobernu talde osoaren artean hartzen dira. Horregatik, oso garrantzitsua da taldean lan egitea, erabakiak ahalik aberatsenak izan daitezen.

Zer asmo duzue aurrera begira?

Hirigintzan, martxan dauden proiektuak aurrera eramateko eta berriak abian jartzeko lan egingo dugu. Kultur arloan, eskaintza zabala eskaintzen jarraitzea dugu helburu, azken urteetan bezala. Betiere, herriko eragileek egiten duten lana azpimarratuz, askotan beraiek baitira ekimen askoren motorra eta dinamizatzaile nagusiak.

"HERRITARREN PARTETIK BEROTASUNA SENTITU DUT, ETA ESKER ONEKO NAGO"

Frontoia zalez lepo, Pelota Goxua txapelketako finaletan

Antolatzaileak pozik daude lehen aldiak izan duen harrerarekin, eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dute



Pelota Goxua txapelketako finalistak eta udaleko ordezkariak.

J.D. ATXONDO

Atxondoko Pelota Goxua txapelketaren lehenengo aldia arrakastatsua izan da. Jaietako azken egunean jokaturako finaletan erabaki ziren txapel biak: lehenengo mailakoa Arkaitz-Ion bikoteak jantzi zuen, eta bigarren mailakoa areitiotarren burura joan zen. Horren aurretik, pilota eskolako finalak ere jokatu zituzten. Baina, ikuskizuna ez zen kantxa barruan bakarrik egon. Harmailetako giroa ere azpimarragarria da, frontoia bete egin zelako finalak ikusteko. Antzeko giroa errepikatu zen finalerdietan ere, Axpeko jaien barruan. "Herrian giroa sortzea genuen helburu, eta balorazio oso positiboa egiten dugu", azaldu dute antolatzaileek. Datorren urtean txapelketa errepikatzeko asmoa dutela ere aurreratu dute.



Bisita gidatua, Etxaburu dorrera

Gerediaga elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak eskualdeko historia, eta ondarea ezagutzeko antolatu dituzten bisita gidatuetako bat Iurtzan izango da. Irailaren 13an, 16:30ean, Etxaburu dorrera joango dira 'Etxaburutarren dorrea' izeneko bisita gidatuan. Interesdunek 946818066 telefonoan edo 'gerediaga@gerediaga.eus' emailen eman dezakete izena.



BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUNERA

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
smartbox bat

PUBLIKOAREN SARIA
Garaiko landetxean egonaldi bat

DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
Databostek emandako aurikularrak

PUBLIKOAREN SARIA
Euskal Produktuz osatutako otzara

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

UZTAILEKO ZOKKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



Basa take away
jatetxeko bowl
osasuntsu berri bat
opari, gozo jateko
zure burua zainduz.



Urkiola Hotela,
egonaldia
eta gosaria
2 pertsonentzako.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Ardi-ile Moztaileen txapelketa Abadiñon

Abadiñok Euskal Herriko Ardi-ile Moztaileen lehen txapelketa hartuko du irailaren 27an, baita nazioen arteko lehiaketa ere. Nazioen lehiaketan Euskal Herriak, Eskoziak, Irlandak, Herbehereak, Frantziak, Espainiak eta Alemaniak parte hartuko dute

J.D. ABADIÑO

Irailaren 27an, Euskal Herriko Ardi-ile Moztaileen Txapelketa-ren lehen edizioa lehiatuko da Abadiñoko probalekuan eta, egun osoko egitaraua antolatu du Euskal Ardi Moztaileen Elkarteak (EAME).

08:00etatik 20:00etara bitartean, Euskal Herriko eta Nazioarteko Txapelketak izango dira, eta baita tresnerien erakustaldiak, umeentzako tailerrak, Eusko Label produktuen dastaketa eta ardi eta artile produktuen azoka ere.

Historian lehen aldiz, Euskal Herriko moztaille txapelduna nor izango den ezagutuko da. Euskal Herriko Txapelketaz gainera, Nazioarteko Txapelketa ere jokatu da Abadiñon. Euskal Herriak, Eskoziak, Irlandak, Herbehereak, Frantziak, Espainiak eta Alemaniak neuruko dituzte indarrak bertan. Guztira, 60 moztaille arituko dira lehian, eta Euskal Herriko 700



Joan zen astean aurkeztu zuten txapelketa Bilbon. EAME

ardiri moztuko diete ilea, antolatzaileek prentsa-ohar batean zehaztu dutenez.

Bi modalitate

Euskal Herriko eta Nazioarteko Txapelketan ardi-ile moztailleak

bi modalitatetan lehiatuko dira: makina eta guraizea. Makina bidezkoan, ardiaren ilea elektrizitate bidezko makinarekin kenduko dute. Guraize modalitatean, ardiaren ilea eskuzko artaziekin moztuko dute.

51 lurzati abadiñarren eskura jarri dituzte, Tornosolo inguruan

Herri-ortuen proiektu honen bitartez, autokontsumoa sustatu gura du herritarren artean Abadiñoko Udalak

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko herritarrak hasi dira Tornosolo landa-eremuko ortu publikoetan lanean. Denera, 50 metroko 51 lurzati banatu dituzte. Lurra lantzeko baliabide materialak eta lanabesak udalak eman ditu. Gainera, ortuak era eraginkorrean erabiltzeko formakuntza saio bat ere eskaini dela jakitera eman dute udaletik. Bestalde, proiektu honen bitartez, autokontsumoa sustatu nahi dutela gaineratu dute, "bizimodu jasangarriago eta osasungarriago baterantz urratsak eginez".



Tornosoloko landa eremua.

Langile berri bat kontratatuta, brigada indartu dute Mallabian

M.Z. MALLABIA

Langile berri baten kontratazioarekin, Mallabiko Udalak udal brigada indartu du. Langileak ekain amaieran hasi zen lanean, sei hilabeteko kontratuarekin. "Uda garaian Mallabian areagotu egiten da brigadako langileen jarduna, mantentze-lan eta espazio publikoen zaintzarekin. Errefoztu honekin, udaleremuak behar bezala mantentzea, espazio publikoen egoera egokia bermatzea eta hilabete hauetan sor daitezkeen beharrezanei modu eraginkorrean erantzutea da helburua. Herritarren beharrek modu eraginkorrean betetzea da asmoa", azaldu dute udaletik.

Xaukena Xauk, elektrotxarangak eta antzerkia Zaldibarko jaietan

Zaldibarren jaietan dabilta eguenetik. Asteburuan, dantzaldiak eta ekitaldi gastronomikoak izango dituzte

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Kirolaz, dantzaldiren batez edo parrandaz gozatu gura dutenek horretarako aukera aproposa izango dute asteburuan, Zaldibarren. Gaur arratsaldean, umeentzako apar festa, arku-jaurtiketa saioa, kuadrillen arteko olinpiadak eta Etorkizuneko Olazar txapelketako finalen errebantxa partidak izango dituzte. 19:00etatik aurrera, rock doinuak izango dira nagusi herriko kaleetan. Elektrokela elektrotxarangak girorik alprojena zabalduko du Zaldibarren, eta 22:30etik aurre-

ra Hazas, Naxker eta Kaleko Urdangak taularatuko dira txosnetako eszenatokian. Zapatuan, ekitaldi gastronomiko ugari izango dute, hala nola tortilla-txapelketa eta Olea kaleko solomo eta sardina-jana, eta dantza egiteko aukerarik ere ez da faltako. Horretaz arduratuko da Beranduegi erromeria. Domekan, azken txanpan, umeen jolas-parkea, euskal dantzak, Jaizalaren kalejira, bertso-saioa, eta Zirko Txosko konpainiaren *Tavol * kale-antzerkia egongo dira. Xehetasun guztiak *anboto.org* atarian daude.



Asteburuan ez da musikarik faltako Zaldibarko kaleetan.

Mojito-salsa gaua eta serigrafia saioa Garain, uda girotzeko

M.Z. GARAI

Udako egunak girotzeko egitaraua antolatu du Trumoitte Kultur Elkartek. Alde batetik, gaur, barikua, 20:00etatik aurrera, mojito eta salsa gaua antolatu dute. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ekitaldiok San Migel eliza inguruan egingo dituzte, eta umeentzako mojitoak ere egongo dira.

Bestalde, uztailaren 12rako serigrafia tailerra antolatu dute. Tailerra 11:00etan hasiko da, eta Torontilek emango du. Trumoitte Kultur Elkartek jakinarazi duenez, elkartearen "izaeraren eta herri-ekimenaren adierazle izango den kamiseta baten diseinua" egingo dute.

Iurretako Mikel Deuna dantza taldeak Esker Onak saria jaso du

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak antolatutako IX. Dantza Tradizionalen Esker Onak ekitaldian saritu dute



Mikel Deuna dantza taldeko kideak. TXEBI ARRIAGA

A. Basauri IURRETA

Iurretako Mikel Deuna dantza taldeak Esker Onak saria jaso du, Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren eskutik. Pozik hartu dute aitortza. "Iurretako dantza taldeak egin duen lana hartu dute aintzat, eta pozik gaude", nabarmendu du Maitane Totorika dantzariak. Bide horretan lanean jarraituko dutela gaineratu dute dantza taldeko kideek.

Dantza tradizionalarekin eta dantzarien biltzarrarekin lotura duten pertsona eta entitateen lana eskertzeko, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak antolatutako IX. Dantza Tradizionalen Esker Onak ekitaldian saritu zuten Mikel Deuna dantza taldea, joan zen ekainaren 26an. Bizkaiko beste hainbat erakunde eta pertsonaren lana ere saritu zuten.

Euskara ikasteko dirulaguntzak eskatu daitezke Iurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Iazko ikasturtean zehar euskara ikastaroa egin duten iurretarrak HAZn egin dezakete eskaria, uztailaren 14ra bitartean. Online ere tramitatu daiteke eskaria. Udalak 1.000 euroko diru-poltsa lotu du laguntza horietarako.

Matrikularen erdia izango da dirulaguntzaren zenbatekoa, eta ikastaroa egin den ikastegiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, gutxienez orduen % 80ra joan dela ziurtatuz. Familia-unitate osoa Iurretan errolatuta egon behar da iazko urtarrilaren 1etik.

Turismo Bulegoa zabalik dago Otxandion, irailera arte

A.B. OTXANDIO

Atzo zabaldu zuten Turismo Bulegoa Otxandion. Udako hila-bete hauetan herria bisitatze- ra datozen turistek arreta eskaintzeko bulegoa irailera bitartean egongo da zabalik, eguaztenetik domekara.

Plazaren alboan dagoen bulegoa goizean bi orduz egongo da zabalik, eguazten eta eguenetan; 10:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere. Ordubete luzatuko da zerbitzua zapatuetan eta domeketan, eguerdiko 13:00 bitartean egongo da zabalik Turismo Bulegoa. Barikuetan, berri- z, arratsaldean irekiko dute, 17:30etik 20:30era, udal ordezkari- k argitu dutenez.



Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera

* Izan zaitez berriemailer ere. Bidali zure argazki eta bideoak

Eskaneatu QR kodea



ANBOTOk antolatutako Udako Argazki Lehiaketa martxan da

Lehiaketan bi kategoria egongo dira. Bertan parte hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da

M.Z. DURANGALDEA

Uda sasoia eta oporrak momentu paregabea izaten dira argazkilari senari bide emateko. ANBOTOn zuen argazkiak ikusteko irrikan gaude, eta gainera, argazkirik politenak saritu gura ditugu. Ho-

rretarako, beste urte batez Udako Argazki Lehiaketa martxan jarri dugu. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena, eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek

www.anboto.org webgunean ipini beharko dituzte argazkiak edo 688 635 041 zenbakira bidali. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da.

Sariei dagokienez, lau sari egongo dira: Durangaldeko argazkirik onenak smartbox bat, eskualdetik kanpoko argazkirik onenak euskal produktuz osatutako otzara bat, Durangaldeko argazkirik bozkatuenak Garaiko Landetxearen eskutik bertan egonaldia eta eskualdetik kanpokoak Databostek emandako aurikularrak.



lazko argazkirik bozkatuena.

DURANGALDEA ASTEON

Udan udal zerbitzuek ordutegi berezia Durangon

DURANGO Uztailean eta abuztuan, Durangoko udal zerbitzuek ordutegiak egokituko dituzte, herritarren beharrak asetzeko eta uda garaian arreta egokia bermatzeko. Udaletik jakitera eman dutenez, aldaketa hauek herritarrek udal zerbitzuak ahalik eta gehien aprobetxatzea, eta horiez modu erosoan gozatzeko aukera izatea da helburua.



PEIO AGIRRE

Zaldu Traileko eta Asto Traileko izen-emateak

DURANGALDEA Uztailean Durangaldeko Koparen barruko lasterketa bi lehiatuko dira: Zaldibarko Zaldu Trail uztailaren 12an, eta Garaiko Asto Trail uztailaren 19an. Hitzordu bietarako izen-ematea abian dago www.kronoak.com webgunean. Zaldibarko izen-ematea uztailaren 11ra arte egin daiteke; Garaikoa 16ra arte.



Erromeria, azoka eta herri-bazkaria Gazteluan

ABADIÑO Eguenetik domekara bitartean Gaztelua auzoko jaiak ospatzen dabilta Abadiñon. Auzo txikia izanagatik, gazteluarrek egitarau osatua antolatu dute. Bihar, esaterako, egun osoko egitaraua izango dute: umeentzako tailerrak, artisau eta sortzaileen azoka, herri-kirolak, auzo-bazkaria, tortilla-txapelketa eta Gaurgi taldearen erromeria.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenaren sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Kritika politikoaren mugak

Kritika politiko zilegiaren mugak gainditzen dituzten jokaera batzuk ikusi ditugu asteotan (inoiz desagertu izan balira bezala). Jokatibide horiek ordezkaritza publikoen aurkako jazarpen edo hostigamendu politiko lez sailka daitezke, eta parte-hartze politikoa mugatzeko eta oztopatzeko asmoz egiten dira.

Mehatxu, difamazio, presio edo bestelako beldurtze-moduen bidez, demokraziaren, errespetu instituzionalaren eta ordezkaritza-askatasunaren funtsezko printzipioak urratzen dituzte.

Durango herri demokratikoa da, eta izaten jarraitzea nahi dugulako, kokildu gabe, lanean darraigu Eusko Alderdi Jeltzalekook.

Elkartasuna, ardura kolektiboa, elkarriketa eta bizikidetzak bakesua bezalako balioak gure kultura politikoaren osagai garrantzitsuenak dira, eta hauek bermatzeko ezinbestekoa da politikari eta ordezkari publiko ororen jardun instituzionala ere errespetatua izatea.

Eztabaidaren tresna legitiemoak, ezberdinen arteko begirunea, tolerantzia eta hitza izan behar direla sinetsitakoak gara gu.

Amaitzeko, lerro hauek erabili nahi ditut, herritik sortuak eta herriaren zerbitzura dauden Ertzaintza eta Udaltzaingoaren lana eskertzeko. Eguneroko gure segurtasuna, askatasunak eta bizikidetzak demokratikoa bermatzeko lanean ari zeretenoi, eskerrik asko!



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



foru aldundia
diputación foral

LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu arrain hauek txikitik handira.








DIFERENTZIAK

Aurkitu bost diferentziak.



LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu.



LABIRINTOA





Zoe Igartiburu.

"Elorriora itzuli eta diskoa egitea erabaki gakoa izan zen"

ZOE IGARTIBURU RODRIGO MUSIKARIA

MUSIKA Zoe Igartiburu musikari elorriarrak 'You where there' lan luzea kaleratu du aurren; Erlantz Prieto Shinovako gitarjoleak ekoitzi du diskoa bere estudioetan

Aritz Maldonado ELORRIO

Lasaitua hartu du Zoe Igartiburu elorriarrak diskoa kaleratuta. Hiru urteko lan prozesua izan dela azaldu du. 'You where there' zure lehen lan luzea kalean da. Zelako harrera izaten ari da?

Oso pozik nago, azkenean irten delako. Azken finean, hiru urte daramatzat honekin. Jendea asko gustatu zaio, eta jendeak ere esan dit, ez dela lagunak edo ezagunak direlako, benetan gustatu zaielako baizik; jende batek

bere konponketak ere proposatu dizkit kantu batzuetan, oso pozgarria da. Lasaitua hartu dut, prozesua nahiko estresagarria izan delako. Erabaki garrantzitsuak ere hartu behar izan ditut, eta pozik nago.

"ELORRIORA ITZULI NINTZEN NIRE DENBORA BETE-BETEAN MUSIKARI ESKAINTZEKO"

Zelako erabakiak?

Madrilen ikasten egon nintzen, eta lehenengo erabaki garrantzitsua Elorriora itzultzea izan zen, nire denbora bete-betean musikari eskaini ahal izateko. Hortik aurrera, orokorrean, abestietan nondik jo ere erabaki behar izan dut. Baina garrantzitsuena, Elorriora itzultzea eta diskoa egitea erabakitzea izan zen. Hiru urteko prozesua kudeatzea ez da erraza izango. Hiru urte lehenengo abestia idatzi eta amaierako ekoizpena

egin dugunera arte izan dira. Lehenengo urtean, Madrilen nengoela idatzi nituen abesti batzuk; Elorriora idatzi ditut gainontzekoak, lasaiago nengoela, eta inguruan jende garrantzitsua edukita. Diskoa egitekoan, nire gurasoak eta nire neba oso gakoak izan dira, beti izan ditut laguntzen; gero, Erlantz Prieto aipatu gura dut, berak ekoitzi du diskoa, eta pila bat lagundu dit; Johanns Steiner ere abesti batzuetako produktorea izan da, madrildarra da bera; Josu Perez elorriarrak argazki, bideo eta diseinuak egin ditu. **Ikusten da abestietan eta soinu aldetik ere garapena.**

Denbora honetan lortu dudana gauzetako bat, nire soinu lortzea izan da. Lehen gehiago zen abestiak idatzi eta grabatu, presarekin, nolabait esatearren; orain, nire denbora hartu dut, eta lagundu ere egin didate. Nik pianoarekin edo gitarrarekin idazten ditut abestiak, baina gero, Erlantzek lagundu dit.

Pop doinuak jorratzen dituzu orokorrean, baina badituzu beste ñabardura batzuk ere. Nola definituko zenuke zure soinua?

Popa da, baina esango nuke pop lasaia dela; badaude bi edo hiru abesti kaña handiagoarekin, baina besteak lasaiagoak dira. Esango nuke, udan entzuteko abestiak direla, lasai, eta eguzkia atzean duzula.

Etorkizun batean ere hortik jotzea aurreikusten duzu?

Egia da oso gustura geratu naitela soinu honekin, baina asko gustatzen zait gauza berriak probatzea eta soinu arakatzea. Estilo edo doinu berriak probatu gura dut, baditudalako ideia batzuk hurrengo disko batean lantzeko moduan.

Disko berri bat lantzeko gogoz, beraz?

Bai! Niri aktibo egotea gustatzen zait. Egia da, beharrezkoa dela noizean behin gelditzea ere; adibidez, diskoa irten zenean, behar nuen atseden hori hartzea, pisu bat ginetik kendu nuelako, baina orain osterara behar dut gauzak egitea, idaztea. Lagunekin nagoenean, adibidez, edo

"LEHENENGO ABESTIEKIN ALDERATUTA, NIRE DENBORA HARTU DUT LANTZEKO"

edozein unetan, zerbaitek inspiratzen nauenean, ideia horiek apuntatzen saiatzen naiz, idazteko behar hori sentitzen dut.

Musika gitarra eta pianoarekin konposatzen duzu. Lehentasunik duzu?

Beharbada oso tipikoa da, baina ideia lasaiago edo tristeago bat badut, pianora jotzen dut, eta zerbait animatuagoa bada, gitarrara. Baina, momentuaren arabera, edo aurrean dudana instrumentuaren arabera.

Maitasuna da diskoaren ardatza, ertz desberdinetatik jorratua, baina maitasuna orokorrean.

Jarraitzen ditudan artistek album kontzeptualak egiten dituzte, hau da, gai baten inguruan hitz egiten dutenak. Nik horrelako zerbait egitea gura nuen, baina ez nuen egin nahi maitasun erromantikoari buruzkoa bakarrik. Diskorako letrak idatzi nituenean, ez zen unea maitasun erromantikoari buruz hitz egitekoa, gauza gehiago nituen buruan eta bizitzan. Maitasunari buruz hitz egitea gura nuen, eta ariketa bezala jarri nion nire buruari, ea non topa dezakedan. Eta non topa dezaket maitasuna? Bada, familian, lagunaren artean, benetako adiskidetasun batean... Orokorrean, istorio bat dago diskoan, maitasun desberdinak kontatzen dituenak. **Garrantzi handia ematen diezu letrai, musikari bestekoa.**

Letrak oso garrantzitsuak dira, nire ustez. Beharbada, jendea ez da gelditzen, eta jada ez ditu letrak irakurtzen. Abesti berri bat entzuten dudana bakoitzean, letrak adi entzuten ditut, eta nirekin ere berdina egin dezaten gura nuke. Saiatzen naiz, behintzat, niretzat garrantzitsuak izan daitezen.

Zuzenean aurkezten ari zara orain diskoa. Baduzu emanaldirik?

Emanaldiaren arabera formatuz aldatzen dut. Taldearekin zein bakarka jo dezaket. Hirurok batera saiatzen ari gara kontzertuak lotzen. Bateria Paula Moreno durangarra da, eta bajista Iñigo Fernandez, Castrokoa. Uztailearen 13an Saturrarango txiringitoan joko dugu, hirukote formatuan. Malagara ere joango naiz jotzera, ni bakarrik, akustikokan.

Etetik datorkizu musikarako zaletasuna.

Nire gurasoak musikariak dira, eta etxean beti izan dut musika oso presente. Txikitataik instrumentuak alboan izan ditut, eta hori laguntza itzela da. Mundu guztiak ez du aukera hori.

Mañaria Urmugaren geltoki izango da

MUSIKA Uztailaren 15ean geldialdia egingo du Urmuga ekimenak Durangaldean, Mañarian, hain zuzen ere; Mañariko Angurretan Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldeko kideak arituko dira, besteak beste, Et Incarnatus Orkestra taldearekin

Aritz Maldonado MAÑARIA
"Bizkaiko urteko kontzerturik bereziena" bezala definitu du Migel Zeberio musikariak, Urmuga ekimenaren baitan, Mañariko Angurreta harrobian uztailaren 15ean egingo duten kontzertua. "Ez da izango handiena, baina kokapen honek badu berezitasuna". Et Incarnatus orkestrarekin batera, Pirata, Hatxe (Zaldibar), Leturia eta Irati Arcelus, Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldea arituko dira emanaldi berezi horretan.

Uztailaren 11tik 31ra egingo da aurtengo Urmuga, Euskal Herriko mendiak, bailarak eta herriak musikaz beteko dituen ekimen herrikoi eta artistikoa; Araban hasiko da, eta "orain arte zeharkatu ez dituzten lurraz zeharkatuz" egingo dute bidea; Bizkaian lau mendi etapa egingo dituzte, eta 15ean, esan bezala, Mañarira iritsiko da Urmuga. "Duela sei urte lehenen-



Ur Mugako kideak, musikariak eta antolatzaileak, Angurretan.

goz Urmuga antolatzea pentsatu zenean, zorakeria bat iruditu zitzaigun. Ezer osoa dirudi hasiera batean, baina oso esperientzia aberasgarria da musikari bezala ere", azaldu du Maddi Arana musikariak.

Ibilbidea zatika ere
Urtero bezala, Urmugaren ibilbideko zatiak nahieran egin daitezke, ez da derrigorra ibilaldi osoa egitea; informazio gehiagorako, www.urmuga.eus helbidera jo daiteke.



Balkoietan ikusgai daude 'Zintzilik'-eko lanak.

Enrike Renteriaren XXVII. edizioa egingo dute asteburuan

MARGOA Domekan, uztailak 6, aire zabaleko pintura-lehiaketaren egingo dute Zornotzan

A. M. ZORNOTZA
Martxan da, beste urte batez, Zornotzako Enrike Renteria pintura lehiaketa; aurtengoa XVII. edizioa du lehiaketak. Aire zabaleko modalitatea uztailaren 6an egingo dute, domekan. Parte-hartzaileek 09:00etatik 11:00etara bitartean eman dezakete izena, eta 17:00ak arte aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak; sari banaketa 18:00etan izango da, Zelaieta zentroko areto nagusian.

Ohi bezala, Enrike Renteria pintura-lehiaketa dela eta 'Zintzilik' atala ere egin dute. Guzti-

ra, 22 lan aurkeztu dituzte aurtengo edizioan, eta Zornotzako Herriko plazako balkoietan eskegita daude; publikoaren saria nork irabazi bozkatu dezakete orain zornotzarrek, uztailaren 4ra bitartean. Zelaieta zentroan jarritako hautetsontzian eman beharko dute botoa.

Irabaziak, AIDAeri
Enrike Renteria pintura-lehiaketako aurreko edizioetan saritutako koadroak salgai jarriko direla azaldu dute antolatzaileek. Salmentarekin batzen den dirua AIDAera bideratuko dute.



GAÍ LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO EHU-KO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

Enpresari txit prestua:

Forum Europako gosarietan laranja zuku naturala sorbaldak tente dastatzera ohituta zaude, zeu eta zeure laguntxoan "esfortzu titanikoari" esker eraiki ei duzue Euskal Herri industrial hau. Beraz, ez duzue gutxiago merezi. Ez dugu hurrengo zurrutada kontrako ezarritik joan dakizun nahi, eta horregatik ez gara hasiko jaso dituzuen laguntza publikoak zenbatzen, edo azaltzen azken aldian nola estutu dituzuen langileen soldatak eta handitu, horrenbestez, zuen irabaziak. Badago merkatuaren gainetik dagoen zerbait: duintasuna.

"EZ AL DIZU BIHOTZAK KRAK EGITEN? GENOZIDIOAREN AURREAN NEGOZIOA EZIN DA AITZAKIA IZAN"

Oraindik bizirik dauden Gazako haurrak gosez hiltzen diren bitartean, zuk kontabilitate kalkuluak egiten jarraituko duzu? Nola lortzen duzu ez asaldatzea, ataraxia egoeran lasai eta bare jarraitzea eguneroko teatroarekin? Ez al dizue bihotzak krak egiten? Genozidioaren aurrean, negozioa ezin da aitzakia izan.

Guk, euskal herritarrok, ez dugu konplizitate hori babestuko.

Eskaera argia da:

- Eten berehala zure enpresak Israelekin dituen hornikuntza, inbertsio, kontratu eta harreman oro.
- Adierazi publikoan hartutako erabakia.
- Presionatu gainerako enpresaburuak gauza bera egitera, berehala.

Forum Europako zukuak sortaldeko odol gorritz tindatuta dituzue honezkero. Jakizue: metal zaporea ez da gozoa gosaritarako, eta bere arrastoa ez da erraza garbitzen.

Euskal Herrian, 2025eko uztailaren ____ (e)an

Izen-abizenak: _____

Sinadura:

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 4

DURANGO Erakusketa
'Bizitza baten isileko lana'. Ignacio Andreu Uriarte durangarraren lanak. *Arte eta Historia Museoa*n, *hilaren 20ra arte*.

ELORRIO Balendin Berrio-Otxoa
Txistularien kalejira, 10:00etan. Meza nagusia Basilikaren Koruaren saioarekin, 12:00etan, Basilikan. Luntxa, Berrio-Otxoa kalean. Berrio-Otxoa abesbatza, 20:00etan, Santa Anako kaperan. *Elorrion*.

GARAI Dantza
Mojito eta salsa gaua. *San Migel eliza inguruan, 20:00etan*.

IURRETA Sanmartinak
Meza eta uren bedeinkazioa, 12:00etan. Luntxa trikitilariekin, 13:00etan. *Amatza auzoan*.

ZORNOTZA Sanpedroak
Tortilla txapelketaren aurkezpena, 20:00etan. Umeen bolo-txapelketa, 21:00etan. Helduen bolo-txapelketa, 22:00etan.

Erromeria: Joxe Angel Elizalde, 23:00etan. *Boroa auzoan*.

ZAPATUA 5

ABADIÑO Kontzertua
Rukula + Llama a la pasma. *Gaztetxean, 22:00etan*.

DURANGO Kontzertua
Gari & Maldanbera. *Plateruenan, 20:00etan*.

ELORRIO Bisita gidatua
'Zenita Berdea'. Izena eman behar da, 94 682 01 64 edo 688 77 62 70 telefono zenbakietara deituz edo *turismoa@elorrion.eus* helbide elektronikora idatziz. *Elorrion, 11:00etan*.

ELORRIO Kontzertua
EIJ0 (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra) *Plazan, 22:30ean*.

ZORNOTZA Sanpedroak
Ehiza txakur erakustaldia, 09:00etan. Umeen jolasak, 12:00etan. Paella-txapelketa, 14:00etan. Mus-txapelketa, 17:00etan.

Idi probak, 22:00etan. Kittu, gauerdian. *Boroa auzoan*.

ZORNOTZA Bisita gidatua
'Izen biko herria' (Gerediaga Elkarte eta Urkiola Landa Garapena). Doako bisita. Aldez aurretik izena eman behar da eta antolakuntzatik baieztapena jaso, Gerediagara (94 681 80 66) deituta edo *gerediaga@gerediaga.eus* helbide elektronikora idatziz. *Zornotzan, 17:00etatik 18:00etara*.

DOMEKA 6

ABADIÑO Kontzertua
EzEzEz taldea. *Amaraun Arte Fabrian, 13:30ean*.

ELORRIO Bisita gidatua
'Jauregien erreinua' (Gerediaga Elkarte eta Urkiola Landa Garapena). Aldez aurretik izena eman behar da eta antolakuntzatik baieztapena jaso, Gerediagara (94 681 80 66) deituta edo *gerediaga@gerediaga.eus* helbide elektronikora idatziz. *Elorrion, 11:00etatik 12:30era*.

ELORRIO Bisita gidatua
'Kaletarra' bisita gidatua. Izena eman behar da, 94 682 01 64 edo 688 77 62 70 telefono zenbakietara deituz edo *turismoa@elorrion.eus* helbide elektronikora idatziz. *Elorrion, 11:00etan*.

ELORRIO Ikuskizuna
Pirritx, Porrotx eta Marimotots. *Plazan, 19:00etan*.

ZORNOTZA Sanpedroak
Triki karro poteoa, 10:00etan. Bazkaria, 14:30ean. Errifaren zozketa, 19:00etan. *Boroa auzoan*.

BARIKUA 11

DURANGO Antzerkia
'Claudette' (Maleta Company & CIE. Balencetoi). *Platerueneko terrazan, 20:00etan*.

ELORRIO Kontzertua
Audience taldeak *Bob Dylan berrikusia* lana aurkeztuko du. *Lariz Jauregian, 20:00etan*.

ZINEMA

ABADIÑO (AIRE ZABALEAN)

SAN TROKAZ PLAZAN

Black is Beltza
Barikua 4: 22:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Jurassic World: el renacer
Barikua 4: 17:45, 20:30.
Zapatua 5: 18:00, 21:00.
Domeka 6: 16:45, 19:30.
Astelehena 7: 17:30, 20:15.
Martitzena 8: 17:30, 20:15.
Eguaztena 9: 19:00.

Una cena y lo que surja
Barikua 4: 18:00, 20:30.
Zapatua 5: 19:15, 21:00.
Domeka 6: 19:30.
Astelehena 7: 18:00, 20:15.
Martitzena 8: 18:00, 20:15.
Eguaztena 9: 19:00.

F1

Barikua 4: 20:30.
Zapatua 5: 19:30.
Domeka 6: 19:30.
Astelehena 7: 20:15.
Martitzena 8: 20:15.
Eguaztena 9: 19:00.

Padre no hay más que uno 5
Barikua 4: 18:00.
Zapatua 5: 17:00.
Domeka 6: 17:00.
Astelehena 7: 18:00.
Martitzena 8: 18:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Padre no hay más que uno 5
Barikua 4: 20:00.
Zapatua 5: 17:00, 20:00.
Domeka 6: 17:00, 20:00.
Astelehena 7: 20:15.

ZALDIBARKO JAIK

UZTAILAK 4

08:30 Familientzako mendi-irteera udaletxeko plazan hasita. Bukatzean, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri-kirolak Zaldia plazan, aizkolariak eta lparaldeko jokoak.

17:00 Apar festa udaletxeko plazan.

18:00-20:00 Arku jaurtiketa; punteriazko jokoak ume eta helduentzat, Olazarko galerian.

18:00 Kuadrillen arteko Txallengeko II. proba Txosnagunean.

18:00 Pilota partidak. XXXVII. etorkizuneko Olazar txapelketa.

Finalen errebantxa; lehenengo partida: ETXEBERRIA-REKALDE; bigarren partida: FERNANDEZ ETA LOZA – EGIGUREN ETA LANDA.

19:00 ELEKTROKELA elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: HAZAS, NAXKER ETA KALEKO URDANGAK.

23:00 Dantzaldia: DJ JOSE MARI Euskal Herria etorbidean.

UZTAILAK 5

10:30 3X3 Haur saskibalo txapelketa kiroldegian.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean.

14:30 Herri-bazkaria txosnagunean.

17:00 3X3 saskibalo txapelketa kiroldegian.

17:00 Kuadrillen arteko Txallengearen final handia txosnagunean.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa eta sardinak.

19:30 ELEKTROTUXFLA elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 BERANDUEGI taldearekin erromeria txosnagunean. Ondoren, XAUKENA XAUK.

23:00 DJ CANIJO Olea kalean.

UZTAILAK 6

10:30 Antonio Gutierrez

GUTI II. memoriala, Bizkaiko txirrindulari eskolen arteko proba: hasiberriak, alebinak eta infantilak. Hasiera Autonomia kalean.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistulari elkartearen kalejira.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Umeen jolas-parkea eskolako patioan (euria eginez gero, kiroldegian).

11:00 Zaldibarko Korakal mezan abestuko du, San Andres elizan.

12:00 Euskal dantzak Zaldia plazan.

19:00 Bertso-saioa, Zaldia plazan: Miren Amuriza, Onintza Enbeitia, Aner Euzkitze eta Sustrai Colina. Gai-jartzaile: Ainhoa Urien.

20:30 Zirko Txoskoren 'TAVOLÉ' kale-antzerkia, udaletxeko plazan (euria eginez gero,

Olazar pilotalekuan).

22:00 Jaietako argazkien emanaldia kontzertuen eszenatokian.

23:00 Su artifizialak.

UZTAILAK 10

19:00 Argazki rallyaren emanaldia eta sari-banaketa liburutegi zaharrean.

UZTAILAK 12

Zaldibarko III. Zaldutrail mendi-lasterketa: **09:30** Lasterketa luzearen hasiera. **09:45** Lasterketa laburraren hasiera.



Ainara Arkarazo Abadiño, Zelaletako plazan.



Ainara Arkarazo Jaenen, Cazorlako parke naturaleko 'Bosques del Sur' ultratrailan. MANU CAMERO

Joseba Derteano ABADIÑO

Ultren kopa amaitzeko lasterketa bat falta da, irailean Tolosaldean lehiatuko dena, baina dagoeneko txapelak badu jabea: Gaikar taldeko Ainara Arkarazo. Ezustean heldu den garaipena dela dio.

Espero zenuen txapelketa halako nagusitasunarekin irabaztea?

Egia esanda, ez. Urte hasieran esan balidate irabazi egingo nuela, ez nuen sinistuko. Hasieran, Nafarroa Xtremen eta Euskal Herria Mendi Erronkan bakarrik parte hartzeko asmoa nuen. Gerora begiratu nuen Koparen aukera. Beste bat egin da, Koparako puntuatu nezakeen, eta probatzearabaki nuen. Beraz, Enkarterri Xtremara ere joan nintzen. Egutegiko aurreneko proba zen. Lehenengoz bakarrik parte hartu nuen, eta oso ondo joan zen. Gorputzak eta buruak oso ondo erantzun zidaten.

Lehenengoz bakarrik?

Ordura arte distantzia luzeetara beti joan naiz Maitane lehengusinarekin. Aldea dago norbaitekin edo bakarrik aritu. Horregatik, orduak sartu ditut entrenatzen eta serioago hartu dut. **Beste bi probak zelan joan ziren?** Nafarroa Xtremen oso eguraldi txarra egin zigun: txingorra, haizea, euria, hotza... Askok sufritu arren, mentalki gogor eustea lortu nuen. Euskal Herria Mendi Erronkara nekatuta heldu nintzen, eta sentsazio eskasei aurre egin behar izan nien.

"Mendiak jolasa izaten jarraitzen du. Gozatzeara dut helburu"

AINARA ARKARAZO LEGARRETA (ABADIÑO, 1996) MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK Euskal Herriko Ultren Kopa irabazi du abadiñarrak. Kopa lehiatzen dutenen artean bera izan da onena orain arte lehiatutako hiru lasterketetan

Euskadiko selekzioarekin aritu zara: Espainiako lineako txapelketan (35 km) Galizian eta 70 kilometroko Ultra bat Jaenen. Zelan joan ziren?

Oso ondo joan ziren. Jaenen bero itzela egin zuen, eta batez ere azken kilometroetan, sufritu egin nuen deshidratazioagatik. Baina, bestelakoan, pozik nago lasterketa bietako errendimenduari.

Durangaldeko Kopa martxan dago. Parte hartzeko asmoa duzu?

Aurten ez, baina etorkizunean Kopan parte hartzea gustatuko

litzaidake. Mallabiko 7 Pago lasterketa egin behar nuen, baina selekziotik deitu zidaten. Iaz egin nuen Mallabikoa, eta baita Mañaritik Atxetara lasterketa luzea ere. Egia da Koparako puntuagarria dena la-

"URTE HASIERAN ESAN BALIDATE IRABAZI EGINGO NUELA, EZ NUEN SINISTUKO"

burra dela. Sorginen Lasterketa urtero egiten dut. Aurten ere lasterketa batzuetan parte hartzeko asmoa dut.

Zer iruditzen zaizu egitasmoa bera?

Oso ondo dago gure inguruak ezagutara emateko. Esaterako, ni beti noa alde berdinerak: Atxarte, Arrazola, Mañaria... Baina, beste aldea ez dut ezagutzen eta bertan dugu. Toki ederrak eta diferenteak ditugu gure inguruan. Gainera, Kopak korrikalariak parte hartzera motibatzen du.

Mendi lasterketak aspalitik egiten dituzu?

Orain lau-bost urte egin nuen lehenengoa: Sorginen Lasterketa. Baina, aurretik mendian askotan ibiltzen nintzen. Maitanek animatuta, mendi martxak egiten hasi ginen. Pirinioetara ere joaten ginen. Inoiz Atxartetik Gorbearako joan-etorria egindakoak gara. Hurrengo pausoa mendi lasterketak izan ziren, Sorginen Lasterketekin hasita eta gero ultrak etorri dira.

Mendia aisialdirako ekintza bat baino gehiago bihurtu da?

Aldaketa bat eragin dit, bai, baina niretzat jolasa izaten jarraitzen du, eta hortik ez da irtengo. Helburuetan arreta jarrita, baina zoratu barik. Ez nau mugatzen. Egun batean Gazteluko itzulua egiteko gogoa badut, horixe egingo dut, eta berdin mendira joan nahi badut. Nire helburu nagusia gozatzeara da.

Aurrera begira zer asmo duzu?

Eskualdeko lasterketez gainera, abuztuan Pirinioetan lasterketa bi egiteko asmoa dut. Batetik, Montlud, iaz amaitu ezin izan nuena. Bestetik, Valle de Tena. Hiru korrikalariren artean erreleboka egingo dugu. Hiru Handiak ere egin gura ditut.

Eta, begirada aurrerago jarrita, urte batzuen barruan, zer proba egitea amesten duzu?

La Travesera egin nahi nuke, Europako mendietan. Urtebete hartu eta proba oso teknikoak egin nahi nituzke, eta azkena La Travesera izatea, teknikoena.



Jon Garai kirol zuzendaria eta Iker Dorronsoro. DURANGOKO KULTURALA

Iker Dorronsoro da Durangoko Kulturalako entrenatzaile berria

FUTBOLA Errenteriako Touring taldetik dator. Aurretik, Eibarko emakumeen taldearekin igoera lortua da

J.D. DURANGO

Mailari eusteko borrokan aritu den denboraldia ahaztu, eta eta pa berri bat abiatzeko prest dago Durangoko Kulturala. Horretarako, entrenatzaile berria fitxatu du: Iker Dorronsoro donostiarra. Errenteriako Touring taldetik dator. Bi futbol klubak Hirugarren RFEF mailan dabil-tza. Dorronsororen gidaritzarekin, Touring taldeak oso denboraldi ona osatu du aurten: zazpigarren tokian sailkatu da, *play off* postuetatik gertu.

Esperientzia zabala du aulkietan, eta bere lorpenik garran-

tzitsuen 2021ean Eibarko emakumeen taldearekin Lehenengo Mailara igo izana da. Gainera, hurrengo denboraldian mailari eustea lortu zuen.

Oraingoz, entrenatzaile donostiarra da aurpegi berri bakarra. Nobedade gehiagoren zain, klubeko arduradunak taldean jarraituko duten jokalariek baieztatzen dabil-tza apurka-apurka. Momentuz, Pablo Bizkarra, Lander Aspiunza, Haitz Lopez, Diego Fernandez, Unai Arieta, Markel Areitio, Jon Lejardi eta Unai Ariz jokalariek taldean jarraituko dutela baieztatu dute.

Olazar txapelketako errebantxa jokoan, gaur

PILOTA Zaldibarko pilota finalak jokatu zituzten pilotariak berriro aurrez aurre izango dira

J.D. ZALDIBAR

Iazko Gabon zaharretan Olazar pilota txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak berriro kantxaratuko dira gaur, Zaldibarren. Txapelkunek errebantxarako aukera emango diete azpitxapelkun 18:00etatik aurrera. Lau eta erdian Etxebarria txapelkuna eta Rekalde lehiatuko dira. Finalean bezain ondo eta parean (22-20) badabiltza, ikuskizuna segurtatuta dago. Binaka, Fernandez eta Loza txapelkunak Lizeaga eta Landaren kontra arituko dira. Lizeagak parte hartu ezin duen Egiguren tokia hartuko du.



Olazar txapelketako sari-banaketa.



Iker Rekagorri eta Aitor Intxausti, Jabi Luaces kirol zuzendariarekin. SDAMOREBIETA

SD Amorebietak harrobira ere jo du, talde berria egituratzeko

FUTBOLA Taldera batu diren jokalariek berrien artean, harrobiko bi daude: Iker Rekagorri eta Aitor Intxausti zomotzarrak

J.D. ZORNOTZA

Kategoriaz aldatzea aldaketa sakonen sinonimo izaten da sarritan, eta horixe da SD Amorebietaren kasua, Lehenengotik Bigarren RFEF mailara jaitsi ostean. Momentuz, hainbat aurpegi berri aurkeztu dituzte, eta eurretako bi harrobikoak dira: Iker Rekagorri (Zornotza, 2004) aurrelaria eta Aitor Intxausti (Zornotza, 2002) eskuin-hegaleko jokalaria.

Bi jokalariek aurretik lehen taldearekin arituak dira. Rekagorri zazpi partidutan parte hartu zuen iaz, eta gol bat sartu

zuen; Intxaustik 2020-21 denboraldian debutatu zuen talde nagusiarekin, Amorebieta B garren B Mailan zebilenean. Iaz partidu batean parte hartu zuen.

Lau fitxaketa

Bestelakoan, klubak lau fitxaketen berri eman du: Mikel Arzallus aurrelaria (Azkoitia, 1995), Gernika Clubetik; Gonzalo Zorrilla aurrelaria (Bilbo, 2001), Portugaletetik; Asier Hernaiz defentsa (Karrantza, 2006), Danok Bat klubetik, eta Javier Entrecanales zentrala (Santander, 2002) Real Racing Clubetik.



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN TRINKETA

Euskal selekzioa bai, laguntza ere bai

Azken asteetan Euskal pilota selekzioari buruz asko hitz egiten ari gara. Nazioarteko euskal pilota federakuntzak Euskal pilota federazioa bere kide onartu ostean, urteetako lanaren osteko asebetea eta poztasuna izan dira nagusi. Are gehiago, orain hilabete eskas Gernikan jokatu zen Jai Alai Nations Leagueak izan zuen arrakasta eta gero.

Baina Euskal pilota selekzio propioa edukitzeak, bide berri bat zabaltzen du. Lan askorekin bete beharreko ibilbide bat. Hala nola eta lehenik eta behin: finantzia-zioa edo inbertsioa, materiala, baliabide pertsonalak (entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak...) eta instalazioak.

Eta gaurkoan, azken ohartxoan zentratuko naiz, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun Trinkete instalazioetan. Gure artean ditugun pilotaleku kantitate eta kalitatea ugaria dela jakin badakigu, baina ez da berdina gertatzen trinketekin (ez kantitate, ezta kalitate aldetik ere). Gure selekzio pilotariak

"SELEKZIOKO PILOTARIAK BEHAR BEZALA PRESTATU DAITEZEN, TRINKET GEHIAGO BEHARKO GENITUZKE"

"DENA POLITIKEO HUTSEAN GERATZEA NAHI EZ BADUGU, BADA GARAIA LANEAN HASI ETA BIDEA EGITEN HASTEKO"

behar bezala prestatu daitezen, trinket gehiago beharko genituzke eta bestela, dauden gutxi horietan arazorik jarri ez eta behar besteko erosotasunekin laguntzea, euskal pilotak bizi duen momentua historikoa baita.

Honegatik, gure instituzioei eskaera egin nahi diet beraien menpe dauden instalakuntzetan erraztasunak jartzeko: inbertsio gehiago, instalakuntzen mantentze zorrotzagoa, flexibilitatea ordutegiekin... eta horrela denok bat eginda joan gaitezke gure pilota selekzioaren alde lanean. Bestela, hainbeste urteetan itxaroten izan garen momentu historiko honek, ez du ezer balioko etorkizunean.

Beraz, dena hitzontzikerian edota politikeo hutsean gelditzea nahi ez baldin badugu, badugu garaia lanean hasi eta bidea egiten hasteko. Euskal pilotak *adar* eta modalitate asko baititu, eta denak berdin maneiatu behar dira, bata bestearen gainetik jarri barik, denek ordezkatuko baitute Euskal pilota selekzioa.

GUARDIAKO BOTIKAK


UZTAILAK 4, BARIKUA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 5, ZAPATUA
09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 6, DOMEKA
09:00-09:00
Sagastizabal,Askatasun etorb. 19 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 7, ASTELEHENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 8, MARTITZENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 9, EGUAZTENA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UZTAILAK 10, EGUENA
09:00-09:00
Irigoin, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



DURANGO
Luken Velardiez Álvarez
Luken gure amore! Asko maite zaitugu, etxeko poza zara! Musu handi bat, amaren, aitaren eta Iralaren partez.



Nahia
Zorionak **Nahia**! 14 urte beteko dituzu zapatuan, uztailak 5. Zorionak alde z aurretik eta egun zoragarria pasa dezazula! Musu potolo bat aitatxo, amatxo, Maialen eta Pauleren partez.



Inhar
Zorionak **Inhartxu**, beste urtebetez topera ospatu dogu zure urtegunen barre eta jolas artien. Jarraitu zaren modukue izeten, hemendik eta ilargire maite zaittugu!



Iratxe eta Ziortza
Nire Izeko Iratxek eta amatxo Ziortzak urteak ein zabiezan ekainaren 30ien. Zorionak Lur, Urtzi eta familia guztiaren partez.



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
📘 Gozatu Gozotegia
📍 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Wintxi (1028.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:


Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/ zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



Ekainak 5, larunbata.



DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriz, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Betikoak flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK



INMOBILIARIAK



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



DURANGO 70 m2-ko apartamentua. Jantzia. Terraza. Garajea eta 12 m2-ko trastelekua.



J.M. ALTUNA 115 m2. 3 logela, sukalde-jangela, egongela handia eta 2 komun. Garajea. Ganbara. Berriztatua. Jantzia.



SAN ROKE 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. **E.E.Z=E**



SAN FAUSTO 63 m2. 3 logela, komuna eta sukaldea.



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO
Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.
Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAITAK SALGAI
Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Markina: Iturreta auzoan. Baserria salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m2-ko lur sailarekin.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat taininatoko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA
Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.
Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



ISD
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxarekin. Berrikuntzak behar ditu. Lehioak oraintsu aldatuta. Berantolaketa bat egiteko aukera. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatuta.



ABADINO San Trokaz: 33,65 m2-etxebizitza + 122 m2-ko lursaila. Egongela-sukalde jantzia, logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta aparkatzeko erraztazuna. Egoera onean.



IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du.(ipar, hego-ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Jantzita.



DURANGO Artekale: 90 m2. Egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua, zerbitzugunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzarik behar.



DURANGO Askatasun Etorbidea: 82 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea) Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garaje bikoitza eta trastelekua ondoan. Ganbara.



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**
Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**
Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**
Olalde kalea: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **274.000 €/ E.E.Z=B**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARA
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA
Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 570.000 € ORAIN 530.000 € / E.E.Z=E**

GAHAJEAK SALGAI /ALOKATZEKU DURANGON SALGAI
Alluizt: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Kurutziaga: Garaje itxia. **28.000 €.**
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI
Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**
Alluizt: Garaje itxia. **75 € / hilean.**
Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKU DURANGON SALGAI
Aliendalde auzunea: 250 m2-ko pabilioia. **1500 € /hilean.**
Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m2 inguruko azalerarekin. **728.000 €.** / **E.E.Z=Salbuetsita.**
Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 €/hil.**



LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA

Jausi ala jauzi?

Aukeran gai asko daude, baina oraingoan ere, euskara ardatz izango du ikasturte honetako azken zutabe honek. Bi albistek piztu didate arreta. Batetik, Pradales lehendakariak esan du oso urrats handiak egin direla euskararen biziberritzean, baina hemendik aurrera beste paradigma bat behar dugula: lortu dugun horretatik abiatuta, jauzi kualitatiboa emango duen paradigma. Nik neuk ere horrela dela uste dut, jauzia egiteko unea dela. Askotariko erronkak ditugu aurrean, eta handira jotaku beharra dago. Bestetik, Bilboko alde zaharreko Bira kulturguneko arduradunek jakinarazi dute Bizkaiko Foru Aldundiak amaitutzat eman duela adostutako hitzarmena, eta Eusko Jaurlaritzak ere ez duela proiekturako dirurik bideratuko; beraz, erabaki horiek tarteko, Bilbon euskarak duen arnagune garrantzitsu bat kolokan geratuko da. Nik, dagoneko, ez dakit zer pentsatu, agintean daudenek esaten dute jauzia egiteko unea dela, gizartearen babesa eta adostasuna lortu behar dela. Baina gero, babesa eta funtzionatzen duen ekimen bat jausteko zorian utziko dute. Zertan ari gara?

Batzuok hara eta besteak hona? Errotonda batean bueltaka, irtenbidea topatu ezinik? Norabidea erabaki behar du lehenbailehen: euskararen inguruan jauzi edo jauzi gura dugun egin!

AKUILUA



Kike Bilbao Elorriko Aidazu auzoan duen ortuan.

"Nekazaritza eredua aldatzea dugu helburu"

GIKE BILBAO LARRINGAN NEKAZARIA

Ortuari ekologikoak ekoiztu eta saltzeko proiektua sortu zuen duela sei urte, familiaren Etxetxiki baserriaren izenarekin; sasoiko produktuekin otzara itxiak banatzen ditu

Aitziber Basauri ELORRIO

Udaldia lan handiko sasoia da ortuan, atsedenerako tarte gutxi uzten duena. Kike Bilbao (Atxondo, 1986) udako lehenengo uzta jasotzen hasi da oraintxe. Atxondon eta Elorrioren dituzten baratzeak, bikotearen eta amaren laguntzarekin lantzen dituenak. Oraindik ere, tomatea da udako produktu preziatuena dioenez.

Zein helbururekin jaio zen Etxetxiki? Nire inguruan sasoiko eta bertako kalitatezko elikagai ekologikoak, osasungarriak, eskaintzeko jaio zen Etxetxiki. Produkzio txikia da, dugun nekazaritza eredua aldatzeko helburuarekin sortutakoa. Auzolanean eraikitako proiektua da. Eman

dako laguntza eskertu gura diet familiari eta lagunei. Bereziki, Balen Jauregi eta bere familiari. Aurretik, lagun batek eta biok Zabale proiektua ipini genuen martxan, Lezaman.

Otzaretan saltzen duzue produktua?

Sasoian sasoiko ortuarien 20 otzara itxi saltzen ditugu. Astero egiten dut banaketa. Horrez gain, Anbotopeko dendan saltzen dugu produktua. Udan, zuzenean bertaratzen dira bezeroak tomate bila, normalean. Eta, tarteka, inguruko jatetxeetatik ere eskatzen dizkigute tomateak, letxugak, piperrak..

Ez zarete azokaz azoka ibiltzen.

Inoiz joan gara, baina, gehienbat landarak eta loreak saltzera. Horrek bereizten gaitu, apur

bat. Neguan asko ereiten dugu, udaberrian landarak edukitzea, baina baita azoketan saltzea ere. Produkzio txikia da gurea, ezin dugu asko landatu, eta ez da gure helburua, gainera. Bada, landareak salduta gastuak murrizten ditugu, eta ahalik eta intsumo —nekazaritzako ekoizpenerako baliabide eta material guztia— gutxien edukitzea lortzen dugu. Agroe-

"PRODUKZIO TXIKIA DA GUREA, EZIN DUGU ASKO LANDATU, ETA EZ DA GURE HELBURUA, GAINERA"

kologiaren helburu nagusieneetakoa da hori.

Produktu ekologikoaren aldeko apustua egin duzu beti?

Bai. Nekazaritza da munduan gehien kutsatzen duen sektoreetako bat. Nekazaritza estentsiboa da nagusi, eta gutxienak dira nekazaritza produkzio txikiak eta familiarrak. Bide horri jarraituta ez dugu ezer. Nekazaritza ekologikoa beharrezkoa dela uste dut. Jaten dugun hori gara. Orain arteko egiteko moduak (traktore handiak, intsumo mordoak, abonua eta pozoia piloa...) ez du etorkizunik.

Jendeak baloratzen du ekologikoa?

Produktu ekologikoaren onuraz oso kontzientziatuta dagoen jende asko dago. Baina, jendartearen gehiengoak prezioari begiratzen dio batez ere, nolako produktua edo gizartea gura duen jakin arren. Hori da nire esperientzia. Badaude beste asko prezioari begiratzen ez diotenak, eta, prezioaren zergatiak galdeztzen dutenak ere bai. Denetarik dago. Baina, ezjakintasun handia dago. Ekologikoa ikustean oso garestia dela uste dute gehienek. Gizarteak kontzientzia hartzea eta produktua baloratzea behar da. Gainera, esango nuke ortuariak ez direla beste produktutaz bultzak beste baloratzen.

Zer eroango dute hurrengo otzarek?

Tomateak batzen hasi gara, baina oraindik ez dago nahikoa tomate denontzat. Beraz, bainak, letxuga, piperra, kalabazina eta azelgak eroango ditu.

Bizi daiteke nekazaritzatik?

Posible da. Baina, zer baldintzat? Ezagutzen ditut baserritik bizi direnak, aurrera egin dutenak. Nik negar asko egin dut, laguntza handia izan dudana arren.





Oparitu Anbotokide txartela

Hileroko zozketa bereziak.
Poltsikorako abantailak.
Deskontuak Anbotoko zerbitzuetan.



Deitu
945 816 558
telefonora